

Itsas misioa zer da?

(What is the Itsas misioa (Mission of the Sea)?)

Epalza, Mikel

Apezetxea

Sokoa

F-64500 Ziburu – Ciboure

BIBLID [1137-439X (2002), 21; 125-130]

"Itsas Misio" deiturak erakustera ematen du Elizak, kontsideratzen duela itsasoko jendea mundu bere - zi bat bezala, bere kultur bereziarekin. Lehorreko gizartean itsas gizonak toki gutti du eta gehien bat gizar - teak ez daki zer den itsasoko biakiak dakartzkien irrisku, sufrimendu, negar eta dolu. Itsas Misioaren abia - pundua hauxe da itsas gizonekin bizitzea, heiekin adixkide izaitzea, heiekin nabegatzea, Jainkoak maite dituelako eta heiekin asmatu gizarte berri bat nun pobreak eta sakrifikatuak, altxatuak diren eta nun duin - tasunak diruak baino geiago duen kontatzen. Itsas Misioa gizartearen partaide bat da: hagian denen lagunt - zari esker salbatuko dugu arrantza bai eta itsas gizonen arteko duintasuna.

Giltza-Hitzak: Itsas Misioa. Arrantzale (Gazte, emazte, alargun). Partaide-Adixkide. Duintasun.

La denominación "Misión del Mar" muestra la consideración de mundo particular que merecen a la Iglesia las gentes del mar y su cultura peculiar. El hombre de mar ocupa un lugar de escasa relevancia en la sociedad de tierra firme y, en general, la sociedad desconoce los peligros, penas y pesares que acarrea la vida en el mar. Ése es el punto de partida de la Misión del Mar, convivir con los hombres del mar, ser su amigo, navegar con ellos, porque Dios los quiere y para inventar con ellos una nueva sociedad en la que los pobres y sacrificados resulten elevados y en la que la dignidad cuente más que el dinero. La Misión del Mar participa en la sociedad: ojalá consigamos salvar la actividad pesquera y la dignidad de los hombres del mar.

Palabras Clave: Misión del Mar. Pescador (Joven, esposa, viuda). Partícipe-Amigo. Dignidad.

La dénomination "Mission de la Mer" montre que l'Église considère les gens de la mer comme un monde particulier possédant sa propre culture. L'homme de la mer occupe une place de peu d'importance dans la société de la terre ferme et, en général, la société méconnaît les dangers, les peines et les challenges qu'amène la vie sur la mer. C'est le point de départ de la Mission de la Mer, vivre avec les hommes de la mer, être leur ami, naviguer avec eux, parce que Dieu les aime et pour inventer avec eux une nouvelle société dans laquelle les pauvres et ceux qui mènent une vie de sacrifice soient grandis et dans laquelle la dignité compte plus que l'argent. La Mission de la Mer participe dans la société: pourvu que nous réussissions à sauver l'activité de la pêche et la dignité des hommes de la mer.

Mots Clés: Mission de la Mer. Pêcher (Jeune, épouse, veuve). Ami-participant. Dignité.

Alain Le Doaré jaunak laburpen biziki aberats bat eman dautzue. Historiaren arabera itsasoari dagokienez, Frantzia bakarra da mintzatzen Misioaz eta ez apostolutzaz beste herri guzietan bezala. Beraz, Iparraldeko eskualdean ez dugu mintzatzen Itsas Apostolutzaz bainan Itsas Misioaz.

Apostolutza erran nahia da Elizatik algi den eraikidura edo zerbitzua. Hegoaldeko portuetan, adibidez Itsas Apostolutza bultzatua dago Itsas Hegiko Parrokietatik. Aldiz Misioaz hitz egitean ez gira Eliz barnetik abiatzen baizik mundutik eta gisa hortan Eliza ez da buru ta jabe, baizik sehi, mutil, ez duen menperatzen mundu baten zerbitzari.

«Itsas Misio» deiturak erakustera ematen du Elizak, kontsideratzen duela itsasoko jendea mundu berezi bat bezala, bere kultur bereziarekin. Iparraldeko arrantzaleak ez dira gehienetan Elizari jarraikiak, laborariak diren bezenbat. Hego aldeko portuetan bertze atxikimendu bada hemen ez dena agertzen: han beroago edo bederen epelago, hemen hotzago. Hala ere Iparraldeko arrantzaleek badute heien erligione berezia, nun Ama Birjinak toki handi bat hartzen duen bereziki itsasoa gero eta beldurgarriago delarik edo arrainik ez delarik biltzen. Arrantzale ezagutu baten ehortzketa egunean, Ziburuko eliza betetzen da gizonez. Horrek erakustera ematen du zoin azkarak diren itsasoan lotzen diren har emanak: itsasoko izerdien artean sortutako elgartasunak bizi guzian dirau. Bai, berezia da arrantzale baten mundua; mesfiatzen da lehorreko aferetaz: izan dadin bankoa, eroslea, komertzanta, administrazioa edo Eliza. Hoiak denak ongi apaindu dute heien «mundua». Lehorreko gizarte hortan itsas gizonak toki gutti du eta gehien bat gizarteak ez daki zer den itsasoko biziak dakartzkien irrisku, sufrimendu, negar eta dolu.

Lehorrean egiten dira idatziak, liburuak bai eta mintzaldiak itsas munduari buruz, gaur bezala, bainan nor den egiazki arrantzalea bai eta zer ote den egiazki arrantzale baten bizia itsasoak daki. Funtsean, arrantzalea zer den, itsasoak daki.

Itsas Misioaren abiapundua hauxe da itsas gizonekin bizitzea, heiekin adixkide izaitea, Jainkoak maite dituelako eta heiekin asmatu gizarte berri bat nun pobreak eta sakrifikuak, altxatuak diren eta nun gizontasunak diruak baino geiago duen kondatzen. Jesusen gaindiko maitasun mezu hori hel arazteko garrantzitsua da ezagutzea bai eta maitatzea itsas mundu berezi hori.

Elizak hezitzen eta igortzen ditu beraz laiko, apez, diakono, fraileak itsas erdirat «Duc in altum» Zoaz itsas zabalera, itsasoa da ere Jainkoaren Tenploan Basomortuan bezala hor ere Jainkoarekiko har eman bereziak izan ditza-kegu, ikasiz anai eta Jainko seme izaiten. Misiolariek eskaintzen dute heien bizia mundu horren onerako, hitzez eta obraz. Misioaren gakoa da arrantzaleak eta arrantzale emazteak entseatzen direla bizitzen heien fedea bai itsasoan bai etxean edo portuan; heiek dira itsas munduko misiolariak. Itsas misioan laikoek dute lehen tokia.

Adibidez gaur egun Frantziako Itsas Misioari lotuak badago apez bat, elektrizista lanetan ari dena merkante untzi batean Indiko Itsasoan, bai eta beste bat diakonoa, engrasadore dena Caraibeko Kruzeo edo plazeretako Untzi handi batean. Untzi hortan bostehun marinel dira, hogeitahamar herri desberdinetatik jinak, erligione guzietakoak, gehien bat hirugarren munduko gizonak, gutti pagatuak. Itsas Misioa da heiekin nabegatzea, apreziatuz gizon bakotxaren balorea, itsas gizonen giza eskubideak defendituz: ahal delarik ere elgartzen dira musulman, indu edo bertze erligioneko marinelein otoitz egiteko.

Iparraldean, Arnaud Idiartegaray apeza izan zen lehen marinel omonier izendatua 1939an Donibane eta Ziburuko porturako. Itsasoratu zen bainan fite eritu. Hogeitabost urtez lan baliosak egin ondoren, haren ondotik Leon Darraidouk sei urte egin zituen Dakarren itsasoan lan eginez, eta bertze bost urtez Xalbat Ubiria motorista lan dorpeetan nabegatu zuen bai Ziburutik bai Dakarretik.

Apeztu aintzin eta apez egin eta biharramunian, 1973ko ekainean, arrantzale bizia eraman izan nuen, bertze lau apez baziren kasu hortan Bretanian eta Vendée aldean. Bainan hemengo apez nausiek mundu arriskutsu hortatik urrundu ninduten Miarritzera igorritz. Duela hamabost urte, Vincent apezpikuak utzi zitzaularik Iparraldeko Itsas Misioaren lema, hamar urte zaraman portuak omonier edo itsasoko apez gabe. Zazpi urtez ibili naiz itsasoan arrantzale lanetan bai Ziburu Donibanetik, bai Hendaiaitik, bai Lekeitiotik, bai Mediterraneotik Bizkaiko flotarekin, ohizko ofizioetan, arrastan, pelagiketan, sare desberdinetan. Ainitz dut ikasi itsasoko bizi dorpe eta eder hortan: gehien bat Jesus Kristok ere oinak, itsasoko uhainez bustiak dituela botak eta enzeraua bestitzen duela eta bizi dela arrantzaleen bihotzetan. Bai Jainkoa ez da lehortiarra bakarrik itsastiarra ere. Ez naiz itsasoan ibili seminarioan ikasitako EGI bat ezagutarazteko itsas gizonet, bainan arrantzaleengandik dohatsutasunaren ebanjelioa berriz ikasteko. Itsasoa balinbada hain segur gizontasunaren ikastola bat, da ere fedearen, esperantzaren eta maitasunaren ikastola.

Barkoz, barko, porturik portu, hau eta hurarekin nabegatuz, lagunak, adixkideak egin ditut. Itsas apostolutzak Hegoaldean edo Misioak hemen ez ditu medio handirik ez etxer ez diruz, bainan bere aberastasun handiena da muga gabeko adixkidantza kate bat badela josia bai Euskal Herrian bai itsaso guzietan, munduan zehar. Oraiko Aita Sainduak dion bezala: «Itsasoak kontinenteak berexten ditu bainan bateratzen herrialdeak». Itsas misioaren berezitasuna da adixkidantza eta nazioartekotasuna.

Nere lana izan da orain arte harremanak sortaraztea arrantzale eta itsasoko jendeen artean, errespetatuz diren eraikidurak eta berri batzu moldatuz. Portuetan eta bulegoetan batzar asko egiten dira maila guzietan bainan ageri dena da kooperatismo izpirutua galtzen ari dela; hego eta ipar arteko anaiatasuna gaur egun puskatua ikusten dut maluruski eta arrantzaleek gero eta geiago itoak senditzen direla administrazioak inposatzen diozkan araudietan.

Iparraldeko arrantza denen artean suntzitzen ari dira. Donibane Lohizunek mila arrantzale zituen duela berrogei urte, bai eta bi mila ta bostehun jende kontserbategietan; orai denak hetsiak dira eta ehun eta hirurogeita hamarzor-tzi arrantzale baizik ez dira gelditzen eta ainitzek gorriak dute ikusten. Egoera horren erakusteko iraganden urtean atera arazi nuen «Altxa Mutillak» zenbaki berezi bat «Arrantzaren 100 urteak». Egoera horren aintzinean, Itsas Misoaren lana da esperantzarik ez galtzea eta segitzea jendetasunean, alkar-tasuna bultzatzen.

Zer dugu egin?

Hasteko arrantzale gasteekin, duela hamabi urte osatu genuen Itsasoko Gazteen bi talde, bai hegoaldeko arrantzaleekin eta beste bat Ziburun hemengo gazteekin: Itsas Gazteria. Hasi ginen inkesta batekin; «arrantzale gazte nor zira, zer nahi duzu ?». Euskadi osoan eta Frantziako portu guzietan egina izan zen: seiehun gazteen erantzuna izan genuen. Gazteizko Jaurilaritzak zuen finantziatu gure lana; hortik sortu ziren juntatze lanak arrantzale artean.

Duela bost urte arrantzale gazteak hasi ziren itsasoko kutsaduraz arduratzen «Zaborrak lehorrera» kanpaina handi batekin. Santurtzetik eta Verdoneraino itsas untzi guzietan kontenedoreak eta pila kutsak ezarri ditugu pastikoak etabar ez ditzagun itsasoan utzi. Pila batek segitzen du merkurioa botatzen itsas azpian berrehun urtez eta badira Bizkaiko Golkoko zolan berrogeita hamar mila tona zikinker, hamabost mila tona plastiko bi uren artean. Ikaragaria da gertatzen dena. Ekintza honen bidez itsasoa garbitzea saiatzen gera baita ere itsas gizonen mentalidadea goitik behera kanbiatzen ari da. «Itsasoa ez da neria eta ez dezaket zer nahi astakeri egin, zeren ene ondotik heldu direnei ez diet nahi arraingabeko ur zikin batzu utzi nahi». Bi urtez Iparraldeko arrantzale bat, izan da pagatua lan hori egiteko barkoz barko, lortu ditugun diru laguntzen bidez: Paueko eta Bordeleko Kontseiluak, Agence de l'Eau etabar... Gaur egun bost arrantzale gazte dira iparraldean arduratzen, bakotxa hamabi untziz arduratuz ekintza honen segitzeko. Hego aldean Kofradiek hartu dute gauza hau eskutan Gazteen ondotik.

Gazteak bultzaturik hasi ginen «Altxa Mutillak» aldizkaria plazaratzen eta «Txo» hegoaldean: sei zenbaki dira eginak. Helburua argi dago: hitza eman ez betiko jaunttoeri bainan deneri, gaztetxoeri ere bai eta informazioa eskuratu, jakinarazi, ikasi, lehortar eta itsastiarren arteko hutsuna txikitu. Lan ainitz galdatzen du, eta lehengo arrantzale eta arduradunek ainitz naute laguntzen.

Itsas Misoaren lanik handiena da konzientzia argitzea. Gizona arraina bezala burutik hasten baita usteltzen. Beraz burua zabala, argitua eta sanao izatea mesedegarria da. Arrain bizien ura egunero erreberritua da itsasoan, gizontasuna atxikitzeo beharrezkoa da erreberritzea, gaurkotzea gure adimendua. Beraz elkar hizketa, denekin hitz egitea beharrezkoak iduritzen zaigu. Baionako apezpikuak, Frantziako Itsas Misoaren buru denak, gutun publiko aipatua egin zuen salatzeo ERIKArek ondatzea eta ondorio guziak. Argi

eta garbi salatu du Itsasoko esklabotasun berriak nun eskipaiak eta natura pikutara igorriak diren. Gutun hori elgarrekin egina izan den lan bat da.

Garrantzitsua da itsas untzietara joaitia, gizonen iritsiak entzutea, naiz eta desberdinak izan. Ilabetero biltzen gira gizon eta emazte gure bilkuretan, bai portuetan bai zabalago. La Turbaletik Hendaia artean, bi ilabetero batzen gera itsasoko arazoak aipatzeko. Aste hontan hiru egunez Lurden bildu gira hiruehun itsas lagun.

Kontzientzia argitu eta bake bideak urratu. Atunaren bakea eraikia izan zen elgar hitzari esker, Galizia, Bizkaia, Gipuzkoa eta Frantzia artean, 1995ean atunaren gerla ondotik. Gai honentzat orenak beharko genituzke. Funtsean pastoral lana izan da on araztea Itsasoa ez dela bakotxarena bainan denena eta ez balinbada gizonen arteko adostasun minimo bat itsasoan gerla bereala dela pizten. Teknikak gizonen laguntzarako dira eta ez gizona teknikaren esklabo izateko. Lan hortan buru ta belarri ibili izan naiz eta erran dezaket ainitz dugula egiteko. Ez da aski zubiak egitea, loturak egitea ez da deus lortzen ez bagira guhaur Zubi bilakatzen batzuen eta besteen artean. Frantziako eta Espainiako Elizak bultzatu dute azkar elgarretaratze lan dorpe hori. Gainera bi herrien artean lan baliosak egin ditugu elgarrekin Europa ez dadin makina hots bat bilaka baizik itsas gizonen erkidego bat, pertsonen arteko lotura.

Europari dagokien duela hamabi urte hasi nintzen arrantzaleen alargunekin eta emazteekin elgartatze kate bat osatzen Ziburu, Pasaia, Mutriku, Galizia, La Rochelle, Sables d'Olonne, Noirmoutier artean. Gaur denen artean emazteak egin dute Europako federakuntza bat. Lan horen fruitu bezala Iparraldean bada elkarte bat «Uhaina» deitua heien buru direnak. Emazteak indartsu dira agertzen: izan dira Parlamentoan eta Bruselasean heien keskak erakusteko. Arrantzalearen familia barkotik etxera doa eta itsasoko lan baldintza eskasak ondorio gaitzak ditu etxeko harremanetan. Itsasoko Mizoaren lana izan da babeslea emazteen oldartze berezi hori. Badira hezkuntza lanak, ikasaldien bidez eginak, bai eta aldizkari bat «Boga». Sinesten dugu geroa sortzen dela emazteen eta etxeko guzien indarretik; askotan pobreak, ezin duak, alargunak erakustera ematen daukute dirua baino azkarragoa dela Justizi gosea eta adixkidantza. Ez da Misiorik ez bada jendeen duitasunean eta gaitasunean sinesten. Geroaren indarra heien baitatik sortzen baita heiek dutelako kanbiamendu beharra senditzen.

Azkenik aipatzea, Baionan portuan eraiki dugun aterpe etxe bat Zama untzietako marinelandako, duela bi urte danik: Escaladour deitua. Hemen ere Itsas Misioa partaide bat da. Ganden urtean Escaladouraren bitarez mila itsas gizon izan dira errezibituak, gure «Seamens Club» hortan. Badira hamar bat laguntzaile eta bat pagatua zerbitzu balios horren egiteko. Marinelak garaizatzen ditugu autoz, heien etxetara dute telefonatzen aterpe hortatik, une goxo bat pasatzen edo informazionea galdatzen. Bidarteko semea, Ziburun bizi den Joseph Garat komandatea da elkarte horren lehendakaria eta ni kudeatzailetarik bat.

Epalza, Mikel: Itsas misioa zer da?

Itsas Misioko lanak itsasoko uhainak bezala dira, espantu gutiz eginak, askotan bazterean, jendeen bistatik urrun, baina emeki emeki plaiak egiten diren bezala dohaike gizonagoak ari gira bilakatzen adixkidantzaren indarren bidez. Agian denen laguntzari esker salbatuko dugu arrantza artisanala bai eta itsas gizonen arteko duitasuna Euskal Herrian, Elea labur ekintza luze.